

Besterik gabe, Maigret



Maigret

Jatorrizko izenburua: *Maigret*

Egilea: Georges Simenon

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal

Argitaratze urtea: 2010

Argitaletxea: Igela

ANDER ARANA

Igelaren eskutik Juan Mari Mendizabalek euskaratutako eleberritxo hau ia oharkabean pausatu da liburu-dendetako apalategietan. Oharkabean diot, bai, argitaletxearen webgunean ere alferrik bilatu baitut sakelako argitalpen honen berri. Eta bai Simenonek bai Maigretrek ere beste zerbait merezi zuten, areago kontuan hartzen badugu komisarioaren abenturak euskaraz irakurri nahi izanez gero eskura dauden aukera bakarrak direla Eusebio Erkiaga lekeitiarrak 1954an itzultitako *Aspaldiko Maigret* (Andres Urrutia euskaltzainburuak atondu eta aurtun Labayruk argitaratua) edo Iñaki Mendigurenek euskara ikasten ari direnentzat prestatutako *Enigmak*.

Ez baita ahaztu behar Georges Simenonen obrari buruzko datuak ez sinesteko modukoak direla. Maigret komisarioaren abenturei bakarrik erreparatzen badiegu, 75 eleberri eta 29 ipuin idatzi zituen, baina hori haren lan erraldoi eta amaiezinen zati bat baino ez da, Maigretenak ez diren beste horrenbeste baino gehiago idatzi zituelako, eta beste horiek direlako, askoren ustez, benetako literatur balioa dutenak. Eta hala ere, XX. mendeko idazlerik oparoena izan zenak ez zuen lortu Frantziako Akademian sartzea (Alejandro Dumasi ere antzeko zerbait gertatu zitzaion), baina lortu zuen, ondo lortu ere, irakurleen aitortza, bere liburuen 500 milioi aletik gora saldu baitira 55 hizkuntzataraz itzultita, eta *Gallimard* argitaletxe ospetsuak ere, azkenean, haren lanaren zati bat sartu baitzuen, 2003an, Simenonen jaiotzaren mendeurrenaren karietara, klasiko handiak soilik biltzen dituen La Pléiade bilduma mitikoan. Bilduman, ordea, Maigreten liburu gutxi batzuk baino ez zituzten sartu, "eleberri horiek izaera estandar eta errepikakorra dutelako". Bistan da irakurleek ez dutela bere egiten destaina hori. Eta zer dago, bada, arrakasta itzel horren atzean? Bada, eleberri honetan aurkituko duzun hori bera: Jules Maigret komisarioa dago, haren izaera onbera, haren araztasun moralak, haren jokabide zorrotz eta zintzoa, haren emazte zoragarriarekiko fideltasun erabatekoa. Eta Simenonen idazkera dago, haren estilo erraz eta soila, ia-ia lehorra izaterainokoa. Eta Paris dago, hiriko zoko-mokoen usaina, alkohola, gau-klubak, prostitutak, hilketak... Izan ere, Maigret komisarioa jaio zenean atera zen argitara Simenon idazlea, ordura arteko lanak ezinez sinatu zituena. Simenonek Maigretengan aurkitu bide zuen, hain zuzen ere, bere bizitzaren ifrentzia. Maigret zintzoa, zorrotza, onbera eta fidela dela esan dugu, eta Simenonek, aldiz, bizitza sozial eroa izan zuen: ehunka maitale izan zituen (besteak beste Josephine Backer ospetsua), naziek Frantzia hartu zutenean haiekin lankidetzan aritu omen zen, amarekin harreman gazi-gozoa izan zuen (*Gutuna amari* liburu gupidagabea eskaini zion), hamaika tokitan bizi izan zen, baita itsasontzi batean ere... Horra Simenon eta Maigret. Horra Maigret eta Simenon. Horra txanponaren bi aldeak.

Honako *Maigret* hau, berriz, Simenonen eleberri tipikoa da. Maigret komisarioa erretiratuta bizi da emaztearekin Parisko aldirietako etxe batean. Aspaldi hartu zuen erretiroa, baina ustekabeko gertakari batek berriz ere murgilaraziko du Parisen. *Floria* kabareteko nagusia hilik agertu da, eta susmagarri nagusia Philippe da, Maigreten iloba. Komisario-ohiak hanpako kideei egin beharko die aurre, baina baita Quai des Orfèvreseko bere lankide-ohiei ere, ez baitute begi onez ikusten Maigret muturra sartzen ibiltzea. Maigretrek, noski, bere eskarmentu eta egonari guztia baliatu beharko ditu batzuei eta besteei aurre egiteko eta ilobaren eztarria estutzen ari den korapilo hori askatzeko.